

AZPIEGITURAK. Lurpean 45 edo 50 metrora egongo zan geltokia egiteko 6.000 milioi euro falta jakoz alkarteari

Miribillako geltokiaren egitasmoa atzera bota dabe, karuegia dalako

Bilbao Ria 2000 alkarateak proiektu barriak eta dirua nondik atara aztertuko dau Renfegaz

Iñigo Bilbao

Miribillan egitekoa zan tren geltokiaren proiektua bertan behera itxi dabe, karuegia zalako; uste zana baino 6.000 milioi euro karuago. Bilbao Ria 2000 alkarateak ez dauka lurpeko azpiegitura hori egiteko horrenbeste diru, eta atzo egindako batzarrean egitasmoa, oraingoz, atzera botatzea erabagi eben. Horren barri Iñaki Azkuna Bilboko alkate eta alkarateko lehendakariak emon eban, batzarraren ostean.

Proiektu hori bidean geratu dan lez, beste batzuk zabal-zabalik ditue atzodanik ateak. Bilbao Ria 2000 alkaratean ohitura danez, hor batzen diran erakundeak —Bilboko Udala, Foru Aldundia eta Espainiako Gobernua, batez be— ados ipini ziran mahai ganean zituen hainbat egitasmo onartu eta beste batzuren ganeko bideragarritasun azterketak eskatzeko.

Miribillan egiten dabilzan auzoko tren geltokiari jagokonez, kontutan hartu behar da trenbidea lurpean dagoela, behegantetik 45 edo 50 metrora. Geltokira jaisteko ipini behar zituen igongailu eta eskilaren inguruan dendak egiteko asmoa eukien agintariak. «Egitasmoaren aurrekontuak gainezka egin dau eta ez daukagu hori egiteko beste diru», aitortu eban Azkunak. Bai alkarateak, bai Antonio Basagoiti PPko zinegotziak (nahiz eta agerraldian Espainiako Gobernuaren bozeroale lez berba egin) argi itxi eben geltoki hori egiteko gogoia badaukiela, eta horrexegaitik Renfe enpresegaz eta udal agintariekin batu beharko dira, proiektua barriro be hutsetik aztertu eta egiteko.

Basurtu-Olabeagako eremua

Atzoko batzarrean onartu ziran artean, alkarateak Basurtu-Olabeaga gunean operazio barri bat egiteko emon beharreko pausoak egitea ebatzi eben. Izan be, eremu horretan beste proiektu bi egiteko asmoa dauka alkarateak berak: Basurtuko Ospitalearen aurreko errepidea barritzeko, bata, eta A-8 autopistean ospitalearen atzetik urteteko Olabeagan egin gura daben saihasbidea, bestea.

Hori guztiori egin ahal izateko, agintariak Labein institutogaz eta inguruan tanatorioa egin gura dauen enpresegaz



Cantalojas zubian bide barri bat egiteaz ganera, plaza bat be egingo dabe erdian.

Beharginak zezeilean ipiniko ditue lanean

Abusuko tren geltokia egin eta Cantalojas zubia zabalteko obrak zezeilean edo martian hasiko ditue, Bilbao Ria 2000 alkarateak proiektuok egiteko erabagia atzo hartu eban eta.

CANTALOJAS ZUBIA. Construcciones Olabarrí SL enpresek egingo dau, Cantalojas zubia zabalteko obrea. Aurrekontua 2.010.649 eurokoa izango da, eta beharrak 14 hilean amaituko ditue. Oraingo bidearen parean beste bat egiteaz ganera, erdian plaza bat egin eta inguruko kaleak barritu egingo ditue. Plaza barriari Manolo Valdes eskultorearen obra bat ipiniko dabe. Beharrak autoen eta trenen trafikoa eten barik egingo dabe. Kontuan hartuko dabe, ganera, leku nahikoa itxi beharko dabela egunen baten hor azpitik abiadura handiko trena Abandoko geltokira sartu ahal izateko.

ABUSUKO GELTOKIA. Geocisa SA eta Tecsa enpresek egingo dabe, 6.430.999 euroko kostua izango dauen obrea. 16 hiletan amaituta egongo da, eta eskilara mekanikoak ipiniko ditue erabiltzaileak auzoa baino altuago egongo dan geltokiraino sartu daitezkan.

ituna berbatu beharko dabe, azpiegitura barriak euren eraikina edo lurak dagozan lekuak hartu beharko ditue eta.

Labein institutuak Udalaren diran lurretan daukan eraikina bota, eta horren truke Za-

mudioko Parke Teknologikoan beste eraikin bat egiteko aukerea aztertuko dabe eurekin. Udalak Bilbao Ria 2000ren esku itxi beharko dau lurren ganeko eskuduntzea. Batzarrean, ganera, Parke Teknologikogaz lor-

tutako akordioa barretsi eben. Tanatorioa egiteko eremuari jagokonez, Udalak horren ugazabagaz tratu egin beharko dau lurra erosteko. Azkunak ez eban horren inguruko diru kopururik aurreratu gura izan, horrek alde

KRITIKEA

PPk Zumalakarregi kalea lurperatzeko deia barretsi dau

Batzar Nagusietako PPko taldeak gogor txarretsi dau EAJren «ardurabagekeria», Diputazioak bertan behera itxi dauelako Zumalakarregi etorbidea lurperatzeko euren egindako proposamena. Hori Bilbon sartzeko dagozan bide nagusietako bat da.

Jesus Isasi batzarkide popularrak nabarmendu dauenez, Foru Aldundiarena dan bide horretan 300 istripitik gora eta hildako bi izan dira, aurtan. Antonio Basagoiti zinegotziak, bestalde, argi itxi dau etorbidean orain gitxi ipini diran semaforoak ez dirala, euren ustez, nahikoak auto istripuak galerazoteko.

PPko ordezkari biok azpimarratu dabe, ganera, euren proposatzen dagozana bere garaiari Leioako herrigunear egin zana besterik ez dala, Abantzada bidea zenbait zatitan estali ebenean. «Bardin-bardina proposatzen gagoz», nabarmendu dabe.

IÑAKI AZKUNA

Bilbao Ria 2000ko lehendakaria

«Miribillako geltokiaren egitasmoaren aurrekontuak gainezka egin dau eta ez daukagu hori egiteko beste diru»

«Cantalojas zubiko obrea egiteko kontuan hartuko da egunen baten hortik pasau beharko dauela abiadura handiko trenak»

bien arteko hartu-emon baldintzatu eikialako.

Horrezaz ganera, alkarateak onartu eban proiektua egiteko beharrezkoak izango diran azterketa estrategikoak eskatzea, eta horren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren ganeko azterketak be.

Ipinen baldintza bakarra izan zan, alkarateak gura beste tratu egin behar izango dituala, hori guztiori euro bat be pagau barik egin ahal izateko. «Dirutza handia eta denpora luzea behar izango da, jakina, operazio hori egiteko. Argi dago, halandaze, egitasmoa zatika egin behar izango dogula», jakin eragin eban Azkuna alkarateak.